

Birjina Santuen erlikitegi-bustuak

Santa Urtsularen segizioko Hamaika Mila Birjinetako bost

Inskripziodun
koroa



Segurtagailua

Harribitxizko
apaingaria

Gerruntzea

Larruzko
eskumuturrak

Santa (B)Albina

Grutesko
apaingaria

Mahuka
sastatuak



Besokoa

Eskumutur
sastatuak



Kofiaren gaineko
mantelina

Bitxitxo

Puztutako
mahukak




Diadema

Kofia
Sorkiak

Kapa



Erlikiak



Erlikitegi-bustuak Gasteizko San Bizente martiriaren parrokiako Mirarietako Andre Mariaren kaperakoak dira.

Antzina, Gurutzearen edo Hamaika Mila Birjinen kaperak deitzen zitzaion.

Nor dira?

Santa Urtsularen bost kide dira. Kondairak dioenez, Urtsula erromes joan zen Britainiatik Erromara, Hamaika Mila Birjinez osatutako segizio batekin. Itzulerako bidaiari, Koloniako hiriaren sarreran, hunoek martiri bihurtu zituzten guztiak.

Zer dira erlikiak?

Pertsona santuen gorputz zatiak dira (hezurrak, ileak, hortzak...), edo haienak izan ziren objektuak. Gurtu egiten dira, eta edozein motatako kutxetan edo haientzat propio egindako eskulturetan gorde. Eliza guztietan dago bat, edo batzuk.

Noiz egin ziren?

1515-1530 inguruan. Ikerketa estilistiko eta teknikoaren arabera, obra horiek Gotikoaren bukaera aldean edo Errenazimenduaren hasieran koka daitezke.

Nork egin zituen?


Ez dugu ezagutzen artistaren izena, baina badakigu Europako Iparraldeko tailer batekoak direla. Beharbada, Flandesko tailer batekoak, baina jatorri alemana ere izan dezakete, Koloniako tailer batetik ekarritakoak alegia.

Nork ekarri zituen Gasteizera?

Carlos V.a enperadorearen aholkulari Hortuño Ibañez de Aguirrek. Berak eta Maria Esquivel emazteak fundatua da erlikitegi-bustuak jarri ziren kaperak pribatua.


Jarri arreta...

...soinekoetan. Luxuzkoak dira, apaingarriz beteak eta aparteko dotoreziadunak, garaiko flandestar gor-teko modaren antzera.



...kapeletan eta orrazkeran. Konplexutasun handiko lana dute, eta denak dira desberdinak. Txirikordak, adatsen kizkurak... xehetasun handiz landuta daude.

...aurpegietan. Estereotipatu samarrak dira, zeren eta bostek dituzte aurpegiera komunak; hala ere, ez dira berdinak, eta erretratuak ematen dute.



...eskuetan. Eskulturak haritzaren egurrez egindako pieza anitez osatuta daude, eta horietako batzuk eskuak dira. Ezin hobeki muntatuta daude pieza guztiak. Santa (B)Albinak, adibidez, hamalau ditu.

...polikromian. Aberatsa eta zaindua da. Konbinatu egiten dira soinekoen eta adatsen urreztatua, alkan-doren urdina eta zuria, aurpegien eta eskuen haragi koloreak eta atal batzuen laka gorriak.

